




Orain 3.000 urteko aztarnak aurkitu dituzte Irurako San Miguel elizan

HISTORIA ▶ Aranzadiko arkeologoek indusketa bidez Burdin Aroan Irura bizileku zela jakin ahal izan dute ▶ 4



Burdin Aroko ebola baten horma —argazkian, ezkerrean— aurkitu dute Aranzadiko arkeologoek. I. GARCIA



M. SOROA

ANJEL ARROSPIDE ▶ AIZKOLARIA

«Ez nuen espero halako sailkapena lortzerik»

Nazioarteko Aizkolari Txapelketako finala jokatuko du leabuarrek etzi ▶ 6

TOLOSALDEA ▶


Autodeterminazioaren aldeko ekitaldi ugari etzi eskualdean

Anoetan, Villabonan eta Tolosan musika eta estropadak, esaterako ▶ 2

VILLABONA ▶

Urik gabe egon dira 3 gunetan obren hodi bat lehertu ondoren

Kale Berrian, Kale Nagusian eta Txerminen jasan dute 16 ordu ▶ 5



Ur hodi bat lehertu ondoren, urik gabe egon ziren bizilagunak . N. U.

ARESO ▶

3 baserriak pistak asfaltatuko dituzte

Belaku, Iruñegi eta Pilipenborda ▶ 7

POLITIKA ▶

Anoeta, Villabona eta Tolosan autodeterminazioaren aldeko ekitaldiak egingo dituzte etzi

Txalapatariak, bertsolariak, trikitilariak, EHNA egiteko aukera, bazkariak, hitzaldiak, kontzertuak eta estropadak izango dira, besteak beste, hiru herrietan



Amasan Aiztondoko ezker abertzaleak herenegun eginiko prentsaurrekoa. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Beste herri askotan egin duten eta egiten ari diren bezala, Anoetan eta Aiztondo bailaran «Euskal Herriaren autodeterminazioa bultzatu asmoz» hainbat ekitaldi antolatu dituz-

te etzirako. Hala, herenegun Aiztondoko ezker abertzaleak larunbatean Villabonan antolatu duten ekitaldien berri eman zuten; «gure herriak errazkeriaren lozorroan sekula nagitu ez delako, aukera paregabea dauka orain jauzi histo-

riko handia emateko» adierazi zuten. Euskal Herriak herrien hitza eta erabakia errespetatzen den mundu bateko kide burujabe izan nahi duela azaldu zuten; halaber, «Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatzen, autodetermi-

nazio eskubidea aitortzeko borroka da gure konpromisoa», erantsi zuten.

Bestalde, «prozesu demokratikoa bide onetik joan dadin, guztion artean ahalegin berezi bat egin behar dugu», adierazi du Anoetako taldeak. Hala, indar metaketa horretan urrats bat eman nahi dutela Anoetan ere, eta deia luzatzen diete herritarrei etzi antolatu duten «jai giroko aldarrikapenean» parte har dezaten, «herriarren parte-hartzearekin autodeterminazioaren aldeko irrintzia herri osoan entzun dadin».

Tolosan ere ekitaldiak

Autodeterminazioaren aldeko Tolosako taldeak autodeterminazioa bultzatzu antolaturiko egitarauaren azken eguna da etzi. Hala, goizean izango diren estropadekin eta ondorengo bertsolarien eta dultzaineroen saioarekin emango zaie amaiera ekitaldiei.

EGITARAUAK ▶

Anoetan, Villabonan eta Tolosan ekitaldi ugari antolatu dituzte etzi. Egun osoan zehar izango da zertaz gozatua.

ANOETA

10:00-13:00. EHNA egiteko aukera udaletxean.
13:00. Ekitaldia (txistulariak, dantzariak, trikitilariak, txalapatariak, bertsolariak).
13:30. EHNA tramitatua dutenen artean argazkia.
14:00. Bertso bazkaria Kuku elkartean. Jexux Mari Irazu eta Amaia Agirre bertsolariak ariko dira. (Txartelak Itzuli tabernan salgai).
18:00. Kalejira plazatik.
Ondoren. Triki poteoa.
23:00. Kontzertua gaztebean: Une eta Potemkin.

VILLABONA

18:00. Txalapatariak, bertsolariak eta DVDa (autodeterminazioaren aldekoa), dantzariak, abeslariak eta hitzaldia Irati Odriozola eta Josune Arretxerekin.
Ondoren. Berdura plazan barrikotea eta gaztain jatea trikitilariarekin.

TOLOSA

Goizean. Estropadak Oria ibaian.
Jarraian. Bertsolariak eta kalejira Tolosako dultzaineroekin.

iragarki laburrak ▶

IKASTETXE PUBLIKOAK

Langileak behar dira. Garbitzaileak, sukaldariak, sukalde laguntzaileak eta atezainak behar dira. Telf.: 943 44 10 05.

UDALETXEETARAKO

LANGILEAK
Hainbat lanpostu. Lorezainak, elektrikariak, igeltseroak, operarioak, gidariak eta peoiak behar dira. Telf.: 943 44 10 05.

ZAINDARIAK

Museo eta artxiboetarako. Zaindari lanpostuak daude. Telf.: 943 44 10 05.

BEZERO ARRETA

Aireportuetan. Lanpostuak daude betetzeko bezeroen arreta sailean. Telf.: 943 44 10 05.

LASTER DEIALDIK

Lanpostu deialdiarako prestakuntza. Suhiltzaileak, udaltzainak eta ertzainak prestatzeko dokumentazioa eta klaseak. Telf.: 943 44 10 05.

ADMINISTRAZIO PUBLIKORAKO DEIA

Plaza hutsak daude. Laguntzaile, administratiboak, liburuzainak, harreragileak, telefonistak eta informatikariak. Telf.: 943 44 10 05.

HEZKUNTZA MINISTERIOA

2/06 Lege Organikoko lanpostu deialdiak daude laster. Haurtzaindegiak, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza. Telf.: 943 44 10 05.

ELBARRITUAK

Lanpostuak. Lanpostu libre finkoak daude. Telf.: 943 44 10 05.

OSAKIDETZA

4.000 plaza libre. Erizain laguntzaileak, geriatría laguntzaileak, zaindariak eta laborategiko laguntzaileak. Telf.: 943 44 10 05.

GIDARIAK

Lanpostu finkoak. Gidariak behar dira lanpostu finkoak betetzeko. Telf.: 943 44 10 05.



Adunarrek bai esan diote autodeterminazioari

Erredakzioa ▶ Hainbat adunarrez osatutako talde batek bai esan dio autodeterminazioari, pasa den astean antolatu zituzten ekitaldien bidez. Hilaren 16an, esaterako, *Euskal Herriko Prozesua eta autodeterminazioa* hitzaldia izan zen Gaineko kide den Txente Rekondoren eskutik, eta hilaren 19an, argazkia atera zuten hainbat herritarrek —irudian— herriko frontoian *Euskal Herriak Autodeterminazioa* lelopean. Ondoren, kantu bazkarian bildu ziren denak. Ekimen

hauen inguruan bertaratu ziren guztiek uste dute «aukera eta beharra dugula Euskal Herrian ireki den prozesuan aurrera egiteko, beraz bakoitzak bere herritik bultzatu beharko dugu ahal dugun neurrian politikoei presioa eginez, alderdikeriak utzi eta behingoz gatazka konpontzearen aldeko jarrera hartu dezaten, Euskal herriari hitza emanez eta herritarrek libreki erabakitzen duguna errespetatuz». Hala, eskerrak ematen dizkiete parte hartu duten guztiei. HITZA



TOLOSA ▶ GIZARTEA

Mexikoko iraultza izango da mintzagai gaur, Kultur Etxean

Euskal Herria Sozialista aldizkariak antolatuta, Rodrigo Cruz, Mexikoko iraultzako kide marxista izango da

ESTI EZEIZA

Euskal Herria Sozialista aldizkariak antolatuta, Mexikoko iraultza izango da hizketagai. Honetarako, Rodrigo Cruz, Mexikoko iraultzako zuzendaritza

marxistako kidea etorriko da Tolosara gaur, 19:30erako.

Azken hilabeteetan eztanda sozial bat eman da Ipar Amerikako estatu honetan. Mobilizazio hauek hauteskundeetan emandako iruzur baten ondo-

rioz sortu dira. Mexikok ez du horrelako mugimendurik ikusi 30. hamarkadako petrolioaren desjabetzatik. Egun batetik bestera, milioika langile eta nekazari zutik jarri dira beren eskubideen alde borrokatzeko.

Bestalde 1914az geroztik, Mexikok ez zuen horrelako krisi sozialik pairatzen. Hala, estatu hau astintzen ari diren gertakizunek inflexio puntu bat markatu dute herrialdearen historian. Hau guztia dela eta, gero eta indar gehiago hartzen ari da iraultza proletario eta sozialista. Honek, kapitalismo latinoamerikarrean ematen ari den egoera gainditzea du helburu. Batzuen ustez, hau da alternatiba bakarra.

Euskal Herria Sozialista aldizkariaren esanetan, «Venezuelako, Boliviako, Ekuadorreko eta Argentinako prozesuek, eta orain Mexikoko krisi iraultzaileak erakusten dute beharrezkoa dela kontinente amerikarrean alternatiba soziala eta internazionalista altxatzea».

RODRIGO CRUZ ▶ MEXIKOKO IRAULTZAKO ZUZENDARITZA MARXISTAKO KIDEA

«Sozialismo hau ez da Sobietar Batasuneko Stalinen garaiko bera»

Rodrigo Cruz Mexikotik etorriko da gaur, Mexikoko esnatze iraultzaileaz hitz egiteko. Bera iraultzako zuzendaritza marxistako kide da, eta Marx, Engels eta Trotskiren ideiak jarraitzen ditu.

Zer da gaur azalduko duzuna?

Mugimendu iraultzaile bat ematen ari da Mexikon, eta orain arte zapalduak egon diren herritarrak kapitalismoaren aurka altxatu dira. Eta beretik prozesu hau azalduko dut. Baita hemendik aurrera

zer gertatuko den, Felipe Calderonek agintea hartzen duenean.

Zerk eragin du egoera hau?

Mobilizazio hauek hauteskundeetan eman zen iruzur baten ondorioz etorri dira. Iruzur hau burgesek, enpresaburuek eta bankariek gauzatu zuten, beraien hautagaiaren alde egiteko, hau da, Felipe Calderon eskuindarraren alde. Uztaileko hauteskundeetan engainu bat eman zen, eta herritarrak kalera atera ziren, nazkatuta. Hauteskundeetako



HITZA

iruzurra nahiz pairatzen zuten egoera salatzen.

Zertan datza ematen ari den iraultza sozial hori?

Langilegoan ematen ari den benetako iraultza bat da. Gai-

nera, beste garai batzuetan gertatu den bezala, botereko organuak ere sortu dira. Beretik Oaxakan ari dira ematen, non, Oaxakako Herri Batzarra (APO, gaztelerazko inizialekin) garai bateko errusiar iraultzako *Sobiet*-en antzekoa den.


Momentu honetan, estatu sozialista bat aurrera eramatea posible ikusten al duzu?

Egun, masentzako alternatiba bat baldin badago, hau sozialismoa da. Sozialismoak, orain arte langileraren aurka joan duen errejimen horrekin hautsi nahi du. Prozesu hori gauzatu da Venezuelan, modu irekian ematen da sistema hau. Eta lantegiak langileen esku daude. Hala, ideia marxisten zabaltzaile gisa, argi utzi nahi dugu sozialismoa ez dela Sobietar Batasuneko Stalinen garaian eman zena. ◀

TOLOSA ▶ KIROLAK

Ikaspilotan atzo, pilotekin jolasean

E. Ezeiza ▶ Euskal Soin Jarduera proiektuak lanean jarraitzen du, eta atzokoan tolosarren txanda izan zen. Hirukide, Samaniego, Pello Errota eta Anoetako ikastetxeetako LH-ko 5. mailako neska-mutilak ibili ziren jolasean Hirukiden eta Beotibarren. Hemen, pilotako hainbat modalitatetan jokatzeko aukera izan zuten: xarean, eskuak babesten, zesta puntan... Hurrengo saioa ostiralean izango dute, Uzturpeko eta Beotibarko frontoietan. E. EZEIZA



TOLOSA ▶

Anestesia eta Lendakaris muertos, bihar

Bihar, gaueko 22:30etik aurrera Anestesia eta Lendakaris Muertos taldeek joko dute Bonberenean. Lehenengo taldea Zarauztik dator bere disko berria *Terapia* aurkezteko asmoz. Lendakaris Muertos taldea berriz, Iruñetik etorriko da bere azken lana *Se habla español* aurkezteko.

ASTEASU ▶

Atxagaren 'Soinujolearen semea' errusieraz

Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* liburuaren gaztelaniako bertsioa irakurri zuen Elena Zernovak Euskal Herrira egindako bidaiaren batean. Hala, berehala errusierara itzultzeari ekin zion. Etzi aurkeztuko du errusierazko bertsioa, San Pesterburgoko Liburu Azokan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228

- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroeko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzio Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarain autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IRURA ▶ HISTORIA

3.000 urteko aztarnak

Burdin Aroko etxola baten horma aurkitu dute Aranzadiko arkeologoek elizan egindako indusketan

IMANOL GARCIA

Irura bizileku zen orain 3.000 urte inguru. San Miguel elizan eraberritzen ari direla eta zenbait aurkikuntza azalera dituzte. Azpimagarriena Burdin Aroko etxola baten aztarnak topatu dituztela da, hormaren zati bat. «Garrantzi handiko aurkikuntza da», azaldu du Alfredo Moraza Aranzadiko arkeologo eta indusketako zuzendariak. «Burdin Aroko biztanleak herrixketan bizi ziren, Anoetako Basagainen edo Tolosa-Albizturreko Intxurren, esaterako. Baina bailaratan ez dira aurkitzen horrelako aztarnak. Horregatik da berezia». Garai horretako silex instrumentuak ere aurkitu dituzte eta baita zeramika zatiak ere.

Alfredo Morazak Marimi Ugalde Irurako alkatearekin eta Joxi Lasa Eliz Batzordeko kidearekin batera eman zituen atzo aurkikuntzen berri. Aranzadiko diziplina anitzeko arkeologo talde bat ari da indusketak egiten —Nerea Sarasola eta Alfredo Moraz arkeologo zuzendaritzapean—, Eliz Batzordeak, Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta. Marimi Ugaldek «aberasgarritzat» jo zituen aurkikuntzak, «Iruraren historiaren irakurketa berri bat ekartzen duelako. Uste baino lehenago bizi zen jendea Iruran. Orain gutxi arte XIV. mendeko dokumentuak genituen Irurari buruz eta orain 3.000 urteko historia duela badakigu».

Hiru eliza

Burdin Aroko aurkikuntzez gain, beste batzuk ere egin dira. «Gaur egungoaz gain, beste bi eliza egon zirela jakin ahal izan dugu», azaldu zuen Morazak. Egungo eraikina errenazimentu garaikoa da,



Egungo elizaren azpian aurkitu dituzten hilobiak aztertzen ari dira egunotan —ezkerrean—. Kanpaiak egiteko molde bat ere aurkitu dute —eskuian—. I. GARCIA

XVI. mende bukaeran eta XVII. mendean hasieran eraikia.

Egungo eraikinaren barruan beste eraikin baten horma topatu dute. Eliza hau txikiagoa da eta XIII-XV. mende ingurukoa dela azaldu dute Aranzadikoek. Horrez gain, horma horren azpian hilobiak aurkitu dituzte. «XI-XII. mendekoak direla uste dugu», azaldu zuen ikerlarien buruak. Aintzinatari ezberdineko aurkikuntzak egin dituzte, beraz, elizaren barruan egindako indusketetan. Zehazki zein datakoak diren jakiteko karbonoaren bitartez egindako datazio-teknika erabili behar dituzte.

Hilobi gehiago ere aurkitu dituzte, horietako bat apaiz batena, egungo elizarekin lotura dutenak. Kanpaiak egiteko moldeak ere topatu dute, garai berdineko beste eliza batzuetan bezalaxe.



Alfredo Moraza, Marimi Ugalde eta Joxi Lasa, atzo, indusketan aurrean. I. GARCIA

ALDIZKARIAK eta PRENTSA

ROSS
LIBURUDENDA

Tel.: 943 65 14 73 • S.Frantzisko • TOLOSA

Eraberritze lanak luzatzen doaz

Aranzadiko arkeologoek egin ari diren aurkikuntzez gain, beste ustekabe batzuk gertatzen ari dira San Miguel elizaren eraberritzean. «Bi aldareak jarri zirenean, bobeda guztia mugitu egin zen», azaldu dio Eliz Batzordeko kide Joxi Lasak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI. «Bobeda osatzen duten harriak, dobelak, mugituta zeuden eta bo-

beda erortzeko arriskuan zegoen». Hain zuzen, aldare berrien gainean zegoen lehio baten zati bat erori zenean hartu zuten eliza eraberritzearen erabakia. Orain dobelen arteko hutsuneak bete egin behar dituzte karbono-zuntzarekin.

Horrek guztiak aurrekontuaren handitzea ekarri du. «Eliza pentsatzen genuen baino egoera okerragoan dago»,

azaldu du Lasak. Indusketek eta egin beharreko konponketa berriek obren atzeratzea behartu du. «Gabonetarako bukatuta egotea espero genuen, baina seguraski otsailera arte egon beharko gara zain», dio Eliz Batzordeko kideak. Bitartean diru laguntzen bila jarraitzen dute, bai instituzioetara joz, bai herritarrei eskaera luzatuz ere. ◀

MUSIKA ▶

Loatzo musika eskolak eskerrak eman nahi ditu

Larunbatean Alegian Loatzo eguna ospatu zuten. Horregatik, Loatzo musika eskolak eskerrak eman nahi izan dizkie parte hartu zutenei: guraso, ikasle eta irakasleei, eta lanean aritu ziren guztiei: Alegiko gurasoei, dantza taldeari, Txintxarri abesbatzari, bertsolari, txistulari eta Alegiko udalari zein kultur batzordeari. Guztien lana eskertzen dute.

AMEZKETA ▶

Agenda 21-en inguruan, balio anitzeko gelan

Gaur, 20:00etan Amezeketako Udalak deitutako herri baztarrean Agenda 21 izango da gaia, balio anitzeko gelan. Osatu den diagnostikoaren lehen zirriborroa aurkeztu eta herritarrek atzeman dituzten hutsuneak konponbideak bilatzen saiatuko dira. Diagnostikoan mota guztietako gaiak landu dira. Bileran herritarren ekarpenak kontuan hartuko dituzte.

IKAZTEGIETA ▶

Kultur Asteko azken hiru ekitaldiak

Kultur Astearen baitan dauden hainbat ekintza egingo dituzte aste honetan. Gaur 20:00etan gimnasioan musika emanaldia izango da, *Igelaren banda* deiturikoa. Bihar, 17:00etan liburutegian Joseba Ramirezek ipuina kontatuko du. Etzi, berriz, 18:30ean haur antzerkia izango da liburutegian: Gorringo taldeak eskainiko duen *Asto bat hipodromoan*.

ALEGIA ▶

Azaro Kulturalaren azken ekitaldiak

Bihar Azaro Kulturalaren baitako antzerkia egongo da Kultur Etxean. Bertan Txalo taldeak Erreleboa izeneko antzerkia egingo du, 22:30ean. Astelehenean, berriz, *Idi probak* izeneko argazki erakusketa izango da eta abenduaren 5era arte izango dira ikusgai. Dabid Apreak osatutako argazki bilduma da. 19:30etik aurrera egongo dira astelehenean.

BALIARRAIN ▶

Babarrun eta gaztain jatea igandean

Baliarraingo Kultur Asteko azaroko ekitaldiei amaiera emateko Arkaitz elkarteak babarrun eta gaztain jatea antolatuko du igandean. Bazkari berezi hau 14:00etan izango da Atari Soron. Abenduaren 11n, aldiz, 16:15ean Arkaitz elkartearen haurrentzako merienda egongo da, eta ordu bat beranduago Txan Magoak saioa egingo du han bertan.

VILLABONA ▶ AZPIEGITURAK

Urik gabe egon dira ia 16 orduz hiru gunetan

Euriaren eraginez lehengo Fleming-en egiten ari diren etxebizitzaren ondoko ur hodi bat lehertu egin zen

NEREA URBIZU

Astearte gauean, 22:00ak aldera Villabonako hainbat etxetan ez zuten kañuetatik urik jaso. Hala, atzo eguerdira arte egon ziren urik gabe, 16 orduz, hain zuzen. Villabonako hiru gunetan izan zuen eragina: kale Berrian, kale Nagusian eta Txerminen.

Gipuzkoako ur kontsorzioko langileak aritu ziren goizean Gurea areto ondoko obren inguruan izandako matxuran. Udaltzainaren eta langilearen arabera, «atzoko 22:00ak aldera izan zen matxura, egindako euriaren ondorioz. Honengatik etxebizitza berrien inguruko lurra mugitu egin ziren eta ura zeraman hodi bat askatu egin zen». Honen ondorioz, eta «matxura handia izan ez bazen ere, eragina handia izan da, herriko 3 kaletan urik gabe geratu zirelako». Ur biltokian zegoen ur guztia gau osoan zehar hustuz joan zen.



Euriaren eraginez lurra mugitu eta hodia bitan banatu zen. N. URBIZU

Eguerdirako, konponduta

13:45erako Gipuzkoako ur kontsorzioko langileek etxe guztietara ura iritsi zedin lortu zuten, «presio gutxirekin iritsiko zen lehen orduetan, eta zikina, noski. Baina sarea normaltzeko hori behar du. Gainera, auskalo zenbat kilometroko sarea jada hutsik zegoen, eta urez berriz betetzeko denbora behar du; horregatik presio gutxirekin iristen da etxeeta-

ra». Arratsaldean behin-behineko konponketa egin zuten, «baipas baten bidez: bi ur sare daude, eta bietako bat ondo dago. Bide bazterretik hodi baten bitartez kaltetu edo hautsi den sarea, ondo dagoen sarearekin lotu dugu». Hau atzoko 18:00ak aldera bukatzea kalkulatu zuten.

Ur hodiak puskaka daude eginda, eta ur hodia eusten zuten lurra erortzearen ondorioz hodia bitan banatu zen.

Hodi honek garraiatzen zuten ur guztia Fleming ikastetxea zegoen obretara isuri zen, etxebizitza berriko lurzorua urak estaliz. «Honen ardura obretako seguruak hartuko du», ur kontsorziokoaren arabera.

Hurrengo pausoa behin-behineko jartzea izango da: «etxebizitza obretan garaieetako horma doan lekuan obra bukatzen dutenean, martxan jarriko dugu betirako egongo den ur hodia».

PILOTA ▶

Asteburuko partidak

Amezketan, Bidanien eta Tolosan izango dira

N. URBIZU

Aste honetan honako partidak jokatu dituzte eskualdean: larunbatean, 16:30ean, Amezeketan binaka nagusien 3. mailako Zazpi-Iturriko bikotea Eibarkoaren kontra ariko da. Nagusien mailako banakakoan joaneko finalerdian Belokiren eta Legarretaren lehia izango da. Biak Zazpi Iturrikoak direnez finalean talde honetako bat izango da ziur.

Gaur 20:00etan, Beotibarrren binakako nagusien arteko: Aurrera-Saiatz 2ko Aspe-

Senperena, Zazpi-Iturriko Baez-Baezen kontra ariko dira.

Aurrera-Saiatzeko kadeteek Oiarpeko bikotearen aurka izango dute partida etzi, Bidaniko pilotalekuan, 19:30ean. Binakako kadeteetan joaneko finalerdiko partidari Zazpi-Iturriko Sukia-Arzelus bikoteak 22 eta Añorgakoek 10 egin zuten. Itzulikoan 11 eginez gero finalean izango dira.

Bestalde, igandean Egiako finalean Lasa-Garmendia eta Renobales-Irureta ariko dira, Egian bertan.

BERRIaren upeletik ardo aparta

REMELLURI 2001. urteko ERRESERBAko ardo

Zuretzat edo nahi duzunari oparitzeko!

Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura: - Zure etxera. - Oparitu nahi diozun lagunarekin etxera edo lantokira.

3 BOTILAKO KUTXA 39 €
6 BOTILAKO KUTXA 78 €

ESKAERA EPEA: azaroaren 27a arte
ESKAERAK EGITEKO: 943 30 43 45
BIDALKETA GASTURIK GABE

AURKERA EZAZU, BIZI EUSKALDEAN **berria**

ANJEL ARROSPIDE ▶ AIZKOLARIA



MADDI.SOROA

«Ez nuen espero horrelako proba motzetan sei sailkapen lortzerik»

Nazioarteko Aizkolari Txapelketako kanporaketan saio bikaina egin zuen, eta bera finaleko faborito nagusia da O T'oole australiarrarekin batera

MADDI.SOROA

Herriko festetan egin zuen Anjel Arrospidek (Leaburu 1956) lehenengo aizkora saioa duela 27 urte. 1981az geroztik, berri, ibilbide potoloa egin du leaburuarak; besteak beste, Euskal Herriko Txapelkun izan baita sei aldiz. Oraindik ere saioi betean dagoela erakutsi du, ordea. Horren seinale, Nazioarteko Aizkolari Txapelketako finalean izango da etzi. Txapelketaz eta beste hainbat kontuz hitz egin du

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Gerra Zibila. Gerra Zibilaren inguruan idatzi dugun ororen berri izateko aukera duzu orain gure webgunean. Gerra Zibilak Tolosaldean izandako eragina eta bizi izandako esperientziadun pertsonen elkarrizketak ezagutu nahi badituzu, sartu gure webgunean eta sakatu Gerra Zibila atala informazio guztia jasoko duzu.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.

Igandean, saio bikaina egin zenuen Nazioarteko Aizkolari Txapelketan.

Saio ona egin nuen, bai. Sei probatetik bost final lortu nituen eta seigarrenean ere sailkatzea lortu nuen. Oso gustura aritu nintzen, hasieratik ondo egin bainituen gauzak. Ez nuen espero horrelako lan motzetan sei klasifikazio lortzerik, harrituta geratu nintzen egindakoa erekin.

Larunbatean izango da finala, zu eta O T'oole zarete faboritoak.

Momentuz nahiko lasai nago, eguna gerturatzen doanean akaso urduriago egongo naiz. Hemengo plazetan ez dugu beti egur ona izaten baina larunbatean egur ona jartzen badute, xamurra, aizkora erraz sartzen den horietakoa, aukera asko izango ditu berak. Mutil handia eta trebea da, oso ondo aritzen da lan motzetan, azkar egiten ditu lanak. Nazabal ere gertu daukagu, sasoiko dago, gainera.

Ezberdintasunik nabaritu duzu euskal aizkolari eta atzerriko aizkolarien artean?

Aizkora ezberdina dugu; euskaldunok egur gogorrarekin aritzen garenez, aizkora estuago izaten dugu. Beraiek, egur xamurragoa erabiltzen dutenez, aizkora zabalagoarekin aritzen dira. Probei dagokionez, normalean zortzi enbor mozten aritzen gara gu eta proba luzeak izaten dira. Beraiek, berri, proba motzak egiten dituzte. Metroko egur txikiak erabiltzen dituzte eta 20 segundo inguruko lanak egiten dituzte.

Txapelketa amaitu ondoren, zein asmo duzu?

Abendutik otsailera arte sei bikoteren arteko txapelketa batean ariko naiz Mugertzarekin batera. Lazkoan finalera iristea lortu genuen eta animatuta gaude aurtengo txapelketarekin.

Euskal Herriko Txapelketak utzea erabakia zenuen.

Euskal Herriko Txapelketak utzi egin nituen, gerriko minez aritu nintzen eta urte betez parterik hartzen ez baduzu mailaz jaisten zara. Berrito ere hirugarren mailatik hasi beharko nuke eta urtero txapelketa bat irabazi; horrek esfortzu handia eskatzen du. Gainera, gazteei atek istea ere suposatuko

luke eta ez nago horretarako animatuta.

Unai Otañok azaldu zuenez, kirol gogorra da aizkora.

Gastu handiko kirola da. Harri-jasotzaile batek, edo pelotarietako esaterako, materiala behin erosten dute eta listo. Aizkolariek, ordea, uneoro egurra erosten ibili behar dugu eta horrek kostu handia suposatzen du. Aizkolari gazte bat aurrera ateratzeko ez da erraza. Aurrean zaudenean errazagoak dira gauzak, baina hasierak beti dira gogorrak. Nik zorte handia izan nuen, gazte koadri-la batek lagundu baininduen.

Luzerako zaitugu aizkora?

Aizkora uzten dudanean ez naiz berriro bueltatuko, beraz, momentuz behintzat aurrera jarraituko dut. Miñik ez dut eta egiten ari naizen lanak, lehia-keketak, erakusketak, etab. egiten jarraituko dut.

Herritarren eskutik omenaldia jasoko duzu igandean.

Poztekoa da herritarrek zurekin akordatzeko direla ikustea. Egindako lanarekin gogoratzen dira eta pozteko albistea da hori. Herritarrek eskertu beharrean nago. Ea egun polita pasatzen dugun.

OREXA ▶

Agenda 21eko bigarren bilera, bihar 21:45ean

Udaletxeko ganbaran izango da bilera eta azken hiru gaiak landuko dituzte

ERREDAKZIOA

Pasa den ostiral iluntzean 30 herritar bildu ziren udaletxeko ganbaran Tokiko Agenda 21eko diagnostikoari ekarpenak egiteko. Sei gai sorta landu zituzten guztira, biztanleria eta etxebizitza; gizarte eta osasun zerbitzuak; hezkuntza; kultura, kirola eta aisia; jarduera ekonomikoa eta azkenik baserria. Bileran, ordea, berandu samar amaitu zenez, beste hiru gai sorta landu gabe gelditu ziren. Horregatik, azken hiru gai horiek lantzeko bihar bigarren bilera egingo dute 21:45ean udaletxeko ganbaran.

Aipatu, honako hauek izango direla biharkoan landuko diren gaiak: herri giroa, ekipamenduak eta ekintzak; ura, energia eta hondakinak; eta azkenik, mugikortasuna.

Orexako herritarrei adierazten zaie, landuko diren gaiak gutxiago direnez, bilera motzagoa izango dela.

IBARRA ▶

Gaur, henna tailerra izango da sahararren eskutik

M.SOROA

Gaur, gazteei zuzendutako henna tatuaien tailerra eskainiko dute Tolosan bizi diren emakume sahararrek eta ondoren, tea eta pastak dastatzeko aukera izango da. Hau guztia, 17:30ean hasi eta 20:30ak bitarte izango da Kultur Etxean.

Ekintza berezi hau Ibarra-ko Kultur Truke Hamabostal-diaren barnean antolatutako dago. Gogoratu, astelehenean izan zela ingururazioa eta hurrengo bi bideo emanaldik hartu dutela toki Kultur Etxean. Bihar, *Yacuyuyari* eta *Cotopaxiko Quichua herria* bideo emanaldiak izango dira 19:30ean.

ARESOKO ▶ AZPIEGITURA

Pilipenborda, Iruñegi eta Belaku baserrietara doazen pistak asfaltatuko dituzte

Zenbait urteren ondoren, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jaso du Aresoko Udalak, eta asfaltatze-obrak urtea amaitu baino lehen hasiko dituzte

NAIARA GARZIA

Areson badira sakabanatuago dauden zenbait baserri, oraindik behar bezalako pistarik ez dutenak, eta arrazoi honengatik, baserri hauen pistak asfaltatzeko proiektua aprobata du Aresoko Udalak.

Belaku, Iruñegi eta Pilipenborda bizilagunak pozik daude, hainbeste urteren ondoren haien etxeetako pistak asfaltatu behar dituztelako. Ez da Aresoko Udalak proiektu hau aurkezten duen lehenengo aldia, baina orain arte ez dute Nafarroako Gobernutik diru-laguntzarik jaso. Aurten, berriz, diru-laguntza hau jaso ahal izateko proiektua beste era batetara aurkeztu du, eta hau nahikoa izan da obraren zati bat Nafarroako Gobernu-



Pilipenbordara doan pista asfaltatuko dute aurki. NAIARA GARZIA

ren diru-laguntzaren bitartez ordaintzeko. Lanak 118.000 eurotako aurrekontua izanen du eta kopuru honetatik, 70.000

euro Nafarroako Gobernuak jarriko ditu.

Pilipenborda, Iruñegi eta Belakura doazenak asfaltatzeaz

gain, Martinenea, Mañenea, Ahuntzenea eta Eguarrea izeneko bordetara ere pistak irekiko dituzte, bertara traktoreak

sar daitezten, baina asfaltatu gabe.

Baserrietakoak «pozik»

Belaku baserrian Frantzisko Javier Rezola eta bere iloba Esteban Garmendia bizi dira. «Garai batean 9 senide eta gurasoak bizi ginen hemen. Anaietan gazteena ni nintzen, ni gelditu nintzen etxean». Rezolak baserritik ateratzen du bizimodua. «Behiak ditut, esneetarako, txekorrak ere saltzen ditut, oiloko ere baditut eta gero baratza lantzen dut». Egunero 05:30ean jeikitzen da behiak jeiztera eta astean bitan herrira jeisten da esnea eramatera. Herrira maiz jeisten delako proiektuarekin «pozik» dago, «guretzat erosoagoa izanen da», azaldu digu baserriarrak. Egun Olatxeta eta Garai-koetxea baserrietaraino iristen den pista, beraz, Belakuraino luzatuko dute proiektuaren ondorioz.

Iruñegi baserrian bizi den Fermin Gomez ere «pozik» ageri da berriarekin. Bere emaztea Joxepa Onsalo egunero jeisten da herrira emakume bat zaintzera, eta asfaltatu ondoren herrira jeisten ibiltzea erosoagoa izanen da. «Asfaltatu eta gero ez dut zuloak konpontzen ibili beharrik izango», esan digu Gomezek.

LEITZA ▶ EZBEHARRA

Urak gainezka egin eta 12 ordu behar izan dituzte egoera kontrolatzeko

Suhiltzaileak eta Udaleko langileak 03:00etan hasi dira lanean

N. GARZIA

Atzo egunak argitu zuenerako ordu batzuk zeramatzan urak errotondaren ondoan gainezka eginez. Goizeko 03:00ak aldera hasi ziren lanean suhiltzaileak, alkatea, Udaleko lan-

gileak... Patxi Saenzek, herriko alkatea, azaldu digun bezala «goizeko 3:00etan jada Nafarroako Aurrezki Kutxako garaiea urez beteta zegoen». Goizean zehar ingurua urez betetzen joan zen, baita zenbait bajera ere, ezbeharrak eragin baitzi-

tuen. «Hasieran ez genuen pentsatzen hainbesterainokoa zenik. Nahiko goiz ikusi genuen ura nondik ateratzen zen, baina ireki eta ireki eta gehiago betetzen zen». Arratsaldean beste makinari bati deitu eta 15:00ak aldera topatu zuten

arazoaren gakoa. Gasolindegia zaharra bota zenean egindako obrak zerikusirik izan dezaketela aipatu du alkatea. «Baliteke gasolinera bota zenean losa bat haustea, eta honen ondorioz, ura geratzea». Errotondako zirkulazioa ere aldatu behar izan zuten, zulo handi xamarra egin zuten ere errepedearen zati bat itxi behar izan baitzuten.

15:00etarako egoera kontrolpean zuten arren, erredakzioa itxi zenean oraindik lanean ziharduten egoera ahal bezain laister berera itzularazteko.



Urak gainezka egin zuen. N. GARZIA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko azaroaren 23a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **17** hotzena **14** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez **HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** **902 82 02 01**
(balantza argitzeko, harpidetun egiteko...)

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Alegia. Ipuin kontaketa, Maite Francorekin, Udal liburutegian, 18:00etan.
Amezketeta. 18:30ean Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa izango da Zumadi eskolan. Umeendako aproposa izango da eta denak daude gonbidatuta.
Baliarrain. Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa izango da, 17:00etan udal txerko kultur gelan.
Ibarra. Kultur Trukearen baitan, Tolosan bizi diren emakume sahararren eskutik, haur eta gaztetxoentzako henna tatuaien tailerra, 17:30etik 20:30era, Kultur Etxean.
Tolosa. 19:30ean, Kultur Etxean, Oargi elkartearen Mendi Hamabostaldiaren baitan, *Bajo los cielos de Asia* Iñaki Otsa de Olzaren eskutik.
Villabona. 22:00etan, Gaztetxean, zine-klub saio berria.
Villabona. Aizkardik antolatzen duen Mendizale Astearen baitan, *Mendilerro zuria*, Peru hitzaldia, Villabonako gazte batzuen eskutik, 20:00etan, Gurea aretoa.

ERAKUSKETAK

Alegia. Kultur Etxean, eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketa ikusgai izango da, bihar arte.
Tolosa. Maxin Labaien tolosarraren oleozko pinturak ikusgai, Lanbroa tabernan, abenduaren 2ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Txuleten artean... festa!

TOLOSA ▶ Abenduaren 6tik 10era 'Txuleten festa' azoka gastronomikoa egingo dute Zerkausian; Orue, Julian, Nicolas eta Burruntziko menua izango da



Atzo egin zuten lehen proba; Udaleko ordezkariak esandakoaren arabera, «guztia oso ondo atera da»; argazkian, sukaldariak. KLISK

ERREDAKZIOA

Usain goxoa nabari zuten atzo goizean Zerkauskatik igarotzen ziren ibiltariak. Goxoagoa izango zen, ziurrenik, zaporea. Haatik, bertan ziren zorioneko gutxi batzuk izan zuten jakia probatzeko aukera. Izan ere, abenduaren 6tik 10era bitarte antolatutako *Txuleten festarako* lehen proba egin zuten, sua egokitzen den ikusteko.

Tolosako Burruntzi, Julian, Nicolas eta Orue erretegiak

Zerkausian azoka gastronomiko berezi bat atonduko dute abenduko egun hauetan *Tolosa Gourmet* izenpean. Bertan herritar nahiz kanpotarrek prezio ekonomikoago batean izen handiko erretegi hauetako menua jan ahal izango dute. Menuaren baitan, jabugo urdailazpikoa, Nafarroako zainzuriak, Tuterako kogoiloak, Lodosako piperrak, idi txuleta, Idiazabal gazta, teja eta zigarrilloak, Broton erreserba ardoa (2001) eta babarrun kremaren dastatzea (Hernialde jatetxeko

Felix Garridoren eskutik) dastatu ahal izango dute. Hori bai, bertaratu nahi dutenek aurrez hartu beharko dute tokia. Añariak abenduaren 6an, 7an, 8an eta 9an izango dira 20:00etatik 22:00etara eta bazkariak, berriaz, abenduaren 9an eta 10ean 13:30etik 15:00etara. Ekimen honetan parte hartuko duten sukaldariak azaldu dutenez, «helburua, besteak beste, Tolosako gastronomiari omenaldia egitea da», Tolosaren 750. urteurrena marko bezala hartuta. Hala, Matias Go-

rrotxatetegi, Pedro Ruiz, Juanjo Pascual eta Javi Hualde lehen probekin «gustura» agertu ziren atzokoan eta Zerkausiko ingurua «egokia» dela esan zuten jatetxe erraldoi batean bilakatzeko. «Horrela jendeak lan nola egiten dugu ikusiko du». Tolosako sukaldari hauek Katalunian eta Espainian ere zabaldu nahi izan dute euren ekimena. Hori dela eta, herenegun Bartzelonan egin zuten aurkezpena eta atzo, berriz, Madrilan.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udal txerko bulegoa

hitza
agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...